# 2024ko

# Memoria

Babes Zibileko Sailburuordetza
Viceconsejería de Protección Civil

## TRAFIKOA - TRÁFICO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# 2024ko Memoria

Babes Zibileko Sailburuordetza
Viceconsejería de Protección Civil

## TRAFIKOA - TRÁFICO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# AURKIBIDEA | ÍNDICE

1. MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA
COMPORTAMIENTO DE LA MOVILIDAD ........ 07

2. 2024KO EZBEHAR-TASAREN BALANTZEA
BALANCE DE SINIESTRALIDAD EN 2024 ........ 10

3. 2024KO EKINTZAK | ACCIONES 2024 ........ 19

4. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK
PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS ........ 42


56
ABUSU
LA PEÑA



# MUGIKORTASUNA-REN BILAKAERA

Mugikortasuna, oro har, 2024. urtean 2023an baino handiagoa izan da. Azpimarratu behar da Euskadiko hiru hiriburuetako sarbideetan erregistratutako trafiko-fluxuen bilakaera ez dela ibilbide luzeko edota mugaz gaindiko trafiko-fluxuarena bezalakoa izan. 2024. urtean hiriburuetako sarbideetako fluxuak 2023an baino ia %2 gehiago izan dira. Fluxu horiek ibilbide luzeko edota nazioarteko trafiko-fluxuak baino askoz erritmo moderatuago batean hazi dira. Horren arrazoiak hauek izan daitezke: alde batetik, erregaien prezioak etengabe handitu direla denbora-tarte laburrean; beste aldetik, erakundeek garraio publikoaren erabilera (Barik Bizkaian, Mugi Gipuzkoan eta Bat Araban) sustatzeko dirulaguntzak aplikatu dituztela, baita ibilgailua modu partekatuan gero eta gehiago erabiltzen dela ere.

Ibilbide luzeko joan-etorriak eta mugaz gaindikoak 2024an, batez beste, 2023an baino %6,1 gehiago eta %6,8 gehiago izan dira, hurrenez hurren. Hiriburuetako sarbideetako trafikoaren hazkunde-erritmoa pandemiaren aurreko erritmoaren antzekoa izan da; ibilbide luzeko eta nazioarteko trafikoaren hazkunde-erritmoa, ordea, urtetik urtera handitzen joan da. Hori dela eta, nabarmendu behar da Euskadiko bide-sare nagusian gero eta ibilgailu astun gehiagok zirkulatzen dutela.

# COMPORTAMIENTO DE LA MOVILIDAD

En términos de movilidad y con carácter general, durante el 2024, se han superado las cifras registradas durante el 2023. Cabe subrayar, sin embargo, un comportamiento diferenciado en los flujos de tráfico registrados en los accesos a las capitales vascas frente a los flujos de largo recorrido y el flujo transfronterizo. En los flujos de acceso a las capitales, durante el 2024, se ha registrado un incremento casi el 2 % con respecto a los registrados en el 2023. Se trata de un ritmo de crecimiento mucho más moderado que el experimentado en la movilidad de largo recorrido y en el tráfico internacional. Este hecho puede deberse a varias razones: por una parte, el incesante aumento de los precios de los carburantes, en reducidos espacios de tiempo; por otro, a las subvenciones que las diferentes instituciones han aplicado en los billetes para promover el uso del transporte público (Barik en Bizkaia, Mugi en Gipuzkoa y Bat en Araba), y también al uso creciente del vehículo compartido.

En lo que respecta a los tránsitos de largo recorrido y al transfronterizo durante el 2024, se han registrado unos incrementos medios del 6,1 % y del 6,8 %, respectivamente, en comparación con los registrados en el 2023. Mientras que el tráfico en la red de accesos a capitales ha llevado un ritmo de crecimiento similar al anterior a la pandemia, en el tráfico de largo recorrido y en el tráfico internacional, el ritmo de crecimiento ha ido en aumento, año tras año. En este sentido, es subrayable que el número de vehículos pesados que circula por la red viaria principal de Euskadi es cada vez mayor.

## EUSKADIKO HIRIBURUETAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOA. 2023-24 ALDERAKETA

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO EN LA RED DE ACCESOS A LAS CAPITALES EN EUSKADI 2023-24




## EUSKADIKO IBILBIDE LUZEKO TRAFIKOA. 2023-24 ALDERAKETA

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO DE LARGO RECORRIDO EN EUSKADI 2023-24



## BIRATUKO MUGAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA 2023-24

## EVOLUCIÓN DEL TRÁFICO EN LA MUGA DE BIRIATOU 2023-24








# 2

# 2024KO EZBEHAR-TASAREN BALANTZEA

## 2.1 ERTZAINTZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2024. urtean Ertzaintzak Euskadiko errepideetan 7.655 trafiko-istripu erregistratu ditu. Horietatik 2.484 istriputan biktimak egon dira eta 5.171 istriputan ez da biktimarik egon. Istripu horietan guztira 13.548 ibilgailu eta 14.916 pertsona egon dira inplikatuta; eta horien ondorioz, 32 pertsona hil dira, 324k zauri larriak izan dituzte eta 3.124k zauri arinak.

2024. urteko behin-behineko kopuruak eta 2023. urtekoak alderatuta, ikusten da 2024. urtean istripuak aurreko urtean baino %2 gutxiago izan direla. 2023. urtearen aldean, hildakoak %16 gutxiago izan dira eta larri zaurituak %1 gehiago.

Jarraian dagoen taulan 2024. urteko behin-behineko datuak eta aurreko urteetako datu kontsolidatuak agertzen dira (iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa):

# BALANCE DE SINIESTRALIDAD EN 2024

## 2.1 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA

Durante 2024 la Ertzaintza ha registrado en las carreteras vascas 7.655 accidentes de tráfico, de los que 2.484 son accidentes con víctimas y 5.171, accidentes sin víctimas. En todos ellos se vieron implicados un total de 13.548 vehículos y 14.916 personas, de las que 32 fallecieron, 324 resultaron heridas graves y 3.124 heridas leves.

Comparando las cifras provisionales del año 2024 con aquellas que lo fueron en 2023, en 2024 el número de accidentes ha experimentado una disminución del 2 % respecto al pasado año. El número de personas fallecidas ha disminuido un 16 %, y el de personas heridas graves ha aumentado un 1 %, respecto a 2023.

La tabla que se muestra a continuación contiene los datos provisionales del 2024 y los consolidados de los años anteriores (fuente: Anuario Estadístico de Accidentes de Tráfico).

## 2024KO TRAFIKO-ISTRIPUAK | ACCIDENTES DE TRÁFICO 2024

| | 2021 | 2022 | 2023 | 2024* |
|---|---|---|---|---|
| ISTRIPU KOPURUA GUZTIRA<br>TOTAL DE ACCIDENTES | 7.491 | 7.642 | 7.942 | 7.655 |
| Biktimak eragin dituzten istripuak<br>Accidentes con víctimas | 2.420 | 2.391 | 2.591 | 2.484 |
| Biktimarik gabeko istripuak<br>Accidentes sin víctimas | 5.071 | 5.251 | 5.351 | 5.171 |
| INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK<br>VEHÍCULOS IMPLICADOS | 13.342 | 13.910 | 14.096 | 13.548 |
| INPLIKATUTAKO PERTSONAK**<br>PERSONAS IMPLICADAS** | 14.271 | 14.640 | 15.424 | 14.916 |
| Hildakoak / Fallecidas | 36 | 34 | 38 | 32 |
| Zauritu larriak / Heridas graves | 293 | 291 | 320 | 324 |
| Zauritu arinak / Heridas leves | 2.985 | 2.968 | 3.301 | 3.124 |

*Behin-behineko datuak, 2025/01/15ean
**Zauririk gabeko pertsonak ere horren barruan daude

*Datos provisionales a 15/01/2025
**Se incluyen personas ilesas

### EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

Biktimak eragin dituzten istripuen seriea 2003.urtetik aurrera beheranzko joera erakusten ari da, eta, estatistikaren aldetik, horixe da bideko ezbehar-tasarekin lotutako serie guztietatik datu fidagarriena. Hala ere, azken 10 urtean ikusi da istripu-tasak egonkortu direla, biktimak eragin dituzten istripuak urtean 2.400 inguru izan baitira.

### EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI

La serie de los accidentes con víctimas, que es el dato estadísticamente más fiable entre todas las series relacionadas con la siniestralidad vial, muestra una tendencia descendente desde 2003. Sin embargo, en los últimos 10 años se observa una estabilización de las cifras de accidentalidad, entorno a los 2.400 accidentes con víctimas por año.

## EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

## EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI




*Behin-behineko datuak, 2025/01/15ean / *Datos provisionales a 15/01/2025

## EUSKADIKO TRAFIKO-ISTRIPUAK (ERTZAINTZA)

Euskadiko errepideetan gertatzen diren trafiko-istripuen ezaugarriak urte batetik bestera ez dira asko aldatzen eta 2024ko trafiko-istripuen ezaugarrien artean hauek azpimarratu behar ditugu:

Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera, istripua izan duten hamar pertsonatatik zazpi gizonezkoak izan dira, eta hiru emakumezkoak. Hil diren biktimen artean, gizonezkoak %75 izan dira.

Trafiko-istripuetan inplikatutako pertsonen %22 inguruk 45 eta 54 urte bitartean zituzten; %18k 35 eta 44 urte bitartean; %15ek 15 eta 24 urte bitartean, %15ek 55 eta 64 urte bitartean, %9k 65 urte edo gehiago eta gainerako %3ak 15 urtetik behera. 2024an errepideetako istripuetan inplikatuta egon diren pertsonen adinaren araberako banaketa hori ez da asko aldatu aurreko urteetako banaketaren aldean.

Horiek horrela, 64 urtetik gorakoak istripua izan dutenen %9 baino ez dira izan. Ertzaintzak erregistratutako zauritu larrien artean, aldiz, 64 urtetik gorakoen portzentajea %24 izatera heldu da. Hildakoen artean, %81ek 18 eta 65 urte bitartean zituzten; eta gainerako %19ak 65 urtetik gora. 2024an hildako biktimen artean ez da 18 urtetik beherakorik egon.

Istripua izan duten pertsonen %77 gidariak izan dira, %22 bidaiariak eta %1 oinezkoak.

Inplikatutako ibilgailuen %63 turismoak izan dira; %7 animaliak ; %4 ziklomotoreak edo motozikletak; %3 bizikletak; eta gainerakoak pertsonak edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuak.

Biktimak eragin dituzten istripu-motei begiratuta, %43 abian zebiltzan ibilgailuen arteko talkengatik izan dira; %20 segurtasun-hesia edo bideko beste elementu bat jotzeagatik; %14 erorketengatik; %4 iraulketengatik; %5 galtzadatik irteteagatik edo amiltzeagatik eta %4 pertsonak harrapatzeagatik. Gainerako %10aren barruan, beste istripu mota bat kategoriaren barruan daudenak, %1 baino ez dira animaliak harrapatzeagatik izan.

*1. Animaliak "beste ibilgailu batzuk" multzoan sartzen dira, baldin eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legediaren menpeko lur-eremu batean edo zirkulazio publikora irekitako bide batean jatorria duen edo sortu den istripu batean inplikatuta badaude.*

## ACCIDENTES DE TRÁFICO DE EUSKADI (ERTZAINTZA)

En cuanto a las características de los accidentes de tráfico producidos en las carreteras vascas en 2024, que se repiten con ligeras variaciones todos los años, podemos destacar las siguientes:

Según datos registrados por la Ertzaintza, siete de cada diez personas accidentadas son hombres, y tres son mujeres. En las víctimas mortales, el porcentaje de hombres es del 75 %.

En torno al 22 % de las personas implicadas en accidentes de tráfico tiene entre 45 y 54 años; el 18 % entre 35 y 44; el 18 % entre 25 y 34; el 15 % entre 15 y 24; el 15 % entre 55 y 64; el 9 % 65 o más años y el 3 % restante tiene menos de 15 años. Esta estructura por edad de las personas implicadas en accidentes en carretera en 2024 apenas varía con respecto a la registrada en los años anteriores.

Así, solo un 9 % del total de personas accidentadas son mayores de 64 años. En cambio, entre las personas heridas graves registradas por la Ertzaintza, el porcentaje de mayores de 64 años sube hasta el 24 %. En cuanto a las personas fallecidas, el 81 % tiene entre 18 y 65 años y el 19 % restante, más de 65 años. En 2024 no ha habido menores de 18 años entre las víctimas mortales.

El 77 % de las personas accidentadas son conductoras, el 22 % ocupantes y el 1 % viandantes.

El 63 % de los vehículos implicados son turismos; el 7 %, animales1; el 4 %, ciclomotores o motocicletas; el 3 %, bicicletas y el resto, vehículos que transportan personas o mercancías.

En relación a los tipos de accidentes con víctimas, el 43 % ha sido consecuencia de una colisión de vehículos en marcha; el 20 %, por choque contra barrera de seguridad u otro elemento de la vía; el 14 %, debido a caídas; el 4 %, por vuelcos; el 5 %, por salidas de la calzada o despeñamientos y el 4 %, por atropellos a personas. Dentro del 10 % restante, que completan otro tipo de accidentes, solo un 1 % lo constituyen los atropellos a animales.

*1. Los animales son considerados como "otros vehículos" cuando se han visto implicados en un accidente producido o con origen en una vía abierta a la circulación pública o terreno objeto de legislación sobre tráfico, circulación de vehículos de motor y seguridad vial.*

Bidearen egoerari dagokionez, esan behar da kasuen %62an lehor eta garbi zegoela, eta gainerako %38an bidearen gainazalean bidearen egoera baldintzatzen zuen zerbait zegoela: ura, elurra, izotza, olioa, etab.

Biktimak eragin dituzten istripuen %52 lan-egunetan gertatu dira eta ez dago alde handirik aste-egun bakoitzean gertatutako istripu kopuruen artean.

Biktimak eragin dituzten istripuak direla eta, urrian eta ekainean erregistratu dira istripu gehien (guztietatik %11 eta %10, hurrenez hurren) eta gutxien otsailean (%6), azaroan eta urtarrilean (%7).

Istripua izan duten gidariek, oro har, segurtasun-uhala eta kaskoa erabiltzen zuten. Dakigunaren arabera, istripua izan zutenean segurtasun-uhala edo kaskoa, hurrenez hurren, erabiltzen ari ez ziren turismoetako gidarien eta bidaiarien zein motor-gidarien (ziklomotoreak ere barne hartuta) portzentajea %1etik beherakoa da.

En cuanto al estado de la vía, en el 62 % de los casos estaba seca y limpia y en el 38 % restante existía algún condicionante en la superficie: agua, nieve, hielo, aceite, etc.

El 52 % de los accidentes con víctimas tienen lugar en días laborables, y no se observan grandes variaciones en su distribución entre los días de la semana.

Los meses en los que más accidentes con víctimas se registraron fueron octubre y junio (11 % y 10 % del total, respectivamente), y en los que menos, febrero (6 %), noviembre y enero (7 %).

El uso del cinturón o casco por parte de las personas conductoras accidentadas es generalizado. Tanto en el caso de los conductores y ocupantes de turismo, como en el de las personas motoristas (incluidos ciclomotores), el porcentaje de personas accidentadas que se conoce no llevaban cinturón de seguridad o casco, respectivamente, es menor que 1 %.



## 2.2 ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2024an, Euskadiko kale eta errepideetan, 35 trafiko-istripuk eragin dituzte hildakoak (Ertzaintzak 31 erregistratu ditu eta udaltzaingoek 4) eta, horien ondorioz, istripuaren unean bertan edo istriputik 24 ordu igaro aurretik, 37 pertsona hil dira. Guztira, hildakoak eragin dituzten istripuak 2023an baino 7 gutxiago izan dira eta hildakoak ere zazpi gutxiago izan dira.

Lurraldez lurralde aztertuta, heriotza-tasa iaz baino %50 handiagoa izan da Araban eta %13 handiagoa Bizkaian; Gipuzkoan, ordea, %37 txikiagoa izan da. Horiek horrela, 2024. urtean trafiko-istripuan hil dira: 9 pertsona Araban (2023an baino 3 gehiago), 9 pertsona Bizkaian (2023an baino 1 gehiago) eta 19 pertsona Gipuzkoan (2023an baino 11 gutxiago).

Larri zaurituen kopurua (431) 2023an (data bereko behin-behineko datuen arabera) baino %3 txikiagoa izan da.

Euskadin hildakoak eragin dituzten trafiko-istripuen bilakaerari begiratzen badiogu, hurrengo grafikoan agertzen denari, hain zuzen, argi dago 2003. urtetik aurrera beherantz joan dela, 2014. urtean erregistratutako gutxieneko kopurura heldu arte, urte horretan hildakoak 29 izan baitziren. Ordutik, hildakoen kopurua aldatzen joan da, 2015ean 53 izan baitziren eta 2024an 37.

## 2.2 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA Y POLICÍAS LOCALES

En 2024 se han producido en las calles y carreteras de Euskadi 35 accidentes de tráfico mortales (31 registrados por la Ertzaintza y 4 por las Policías Locales), con el resultado de 37 personas fallecidas en el acto o antes de transcurridas las primeras 24 horas. En total, ha habido 7 accidentes mortales y 7 víctimas mortales menos que en 2023.

Por territorios, la mortalidad sube, respecto al pasado año, un 50 % y un 13 % en Álava y en Bizkaia, respectivamente, mientras que cae un 37 % en Gipuzkoa. Así, en 2024 han perdido la vida en accidente de tráfico: 9 personas en Álava (3 más que en 2023), 9 personas en Bizkaia (1 más que en 2023) y 19 personas en Gipuzkoa (11 menos que en 2023).

En cuanto al número de personas que han resultado heridas graves (431), se ha experimentado un descenso del 3 % respecto a los datos provisionales a la misma fecha de 2023.

Si observamos la evolución de las personas fallecidas en accidentes de tráfico en Euskadi, como muestra el siguiente gráfico, vemos cómo desde 2003 ha seguido una línea descendente hasta llegar al mínimo registrado en 2014, con 29 personas fallecidas. Desde entonces, el número de personas fallecidas ha variado de 53 en 2015, a 37 en 2024.

## EUSKADIN TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN BILAKAERA

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRÁFICO EUSKADI

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)




## EUSKADIN TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN KOPURUREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRAFICO EUSKADI TTHH

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)



## ISTRIPU-TASAREN TIPOLOGIA

Hildakoen %65 gidariak izan dira (%58 motozikleten gidariak eta %42 turismoen edo beste ibilgailu batzuen gidariak), %19 bi gurpiletik gorako ibilgailuen bidaiariak eta gainerako %16a oinezkoak (horietako bat motozikleta batek harrapatu zuen).

Hildakoen %57 kolektibo kalteberetakoak izan dira; kolektibo horietako 21 pertsonatatik 15 motor-gidariak izan dira eta 6 oinezkoak. Zenbaki absolutuetan, kolektibo kalteberetako hildakoen kopurua 2023koa bezalakoa izan da. Bereziki nabarmendu behar da 2024. urtean hildakoen artean txirrindularirik ez dela egon.

Hildako guztietatik %76 gizonak izan dira eta gainerako %24a emakumeak. Iaztik hona banaketa hori aldatu da, gizonen portzentajea 2023an baino 10 puntu txikiagoa izan baita.

## HILDAKOEN PORTZENTAJEA ADINAREN ARABERA

Hildako gidarien %54k 45 eta 64 urte bitartean zituzten; %33k 14 eta 44 urte bitartean; eta gainerako %13ak 64 urtetik gora.

Hildako bidaiarien %43k 25 eta 44 urte bitartean zituzten; %29k 14 eta 24 urte bitartean; %14k 45 eta 64 urte bitartean; eta gainerako %14ak 65 urtetik gora.

Oinezkoen %66k 65 urte edo gehiago zituzten; %17k 25 eta 44 urte bitartean; eta gainerako %17ak 14 urtetik behera.

## KOLEKTIBO KALTEBERA

Trafiko-istripuetan hildako guztien %57 kolektibo kalteberetakoak ziren. %71 motor-gidariak izan dira eta gainerako %29 txirrindulariak. Hildakoen banaketa beheko grafikoan ikus daiteke:

## TIPOLOGÍA DE LA ACCIDENTALIDAD

El 65 % de las personas fallecidas son conductoras (el 58 % son conductoras de motocicleta y el 42 % de turismos u otros vehículos), el 19 % son ocupantes de vehículos de más de dos ruedas, y el 16 % restante son viandantes (una de ellas atropellada por una motocicleta).

El 57 % de las personas fallecidas pertenece al colectivo de vulnerables; de 21 personas de este colectivo, 15 eran motoristas y 6 eran viandantes. Respecto a 2023, y en números absolutos, han fallecido el mismo número de personas pertenecientes al colectivo vulnerable. Resulta especialmente significativo que durante el 2024 no ha fallecido ninguna persona ciclista.

De todas las personas fallecidas, el 76 % son varones y el 24 % restante, mujeres. La distribución ha variado respecto al año anterior, al reducirse 11 puntos el porcentaje de varones con respecto a 2023.

## PORCENTAJES POR EDAD DE LAS PERSONAS FALLECIDAS

De las personas conductoras fallecidas, el 54 % tiene entre 45 y 64 años; el 33 % entre 14 y 44 años; y el 13 % restante tiene más de 64 años.

De las personas ocupantes fallecidas, el 43 % tiene entre 25 y 44 años; el 29 % entre 14 y 24 años; el 14 % entre 45 y 64 años; y el otro 14 % más de 65 años.

Entre las personas viandantes, el 66 % tenía 65 años o más; el 17 % tenía entre 25 y 44 años; y el otro 17 % menos de 14 años.

## COLECTIVO VULNERABLE

El 57 % del total de personas fallecidas en accidente de tráfico pertenecía a un colectivo vulnerable. El 71 % de ellas eran motoristas, y el 29 % restante viandantes. Sobre el total de personas fallecidas, la distribución es la que se muestra en el gráfico:

## OINEZKOAK

2024an 6 oinezko hil dira: 3 Gipuzkoan, 2 Araban eta 1 Bizkaian. Emakumeak %33 izan dira.

## MOTOR-GIDARIAK

2024an motorrez hil diren hamabost pertsonetatik 12 gizonezkoak ziren eta 3 emakumeak. 2017tik aurrera motorrez hil diren zortzi emakumeetatik bost gidariak ziren eta hiru motozikletako bidaiariak; horiek dira kolektibo horretan azken 8 urteetan gertatutako heriotzen %8.

## VIANDANTES

De las 6 personas viandantes fallecidas en 2024, 3 perdieron la vida en Gipuzkoa, 2 en Álava y una en Bizkaia. Las mujeres representan el 33 % del grupo.

## MOTORISTAS

Doce de las quince personas fallecidas en moto en 2024, 12 eran hombres y 3 eran mujeres. De las ocho mujeres motoristas fallecidas desde 2017, cinco eran conductoras y tres, ocupantes de motocicleta; suponen el 8 % del total de los fallecimientos de este colectivo en los últimos 8 años.



## HILDAKOAK (KOLEKTIBO KALTEBERA)

## PERSONAS FALLECIDAS (COLECTIVO VULNERABLE)




## HILDAKO MOTORZALEEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA

## EVOLUCIÓN POR SEXO DE PERSONAS MOTORISTAS FALLECIDAS





# 3

# 2024KO EKINTZAK

# ACCIONES 2024

## 3.1 BIDE-HEZIKETA ETA-PRESTAKUNTZA

### BIDE-HEZIKETA

**Trafiko-istripuak prebenitzeko sentsibilizazio-ekintzak, unibertsitatetik kanpoko hezkuntza-sistemako ikasleentzat.**

***"Gerta dakizuke / Te puede pasar"*** programa Euskadiko ikastetxeetako 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. AESLEMEk (Bizkarrezur-muineko Lesioa Aztertzeko Elkartea) garatu du horrelako lesioei eta horien prebentzioari buruzko programa hori; askotan horrelako lesioak trafiko-istripuek eragiten baitituzte.

- **Saioen kopurua: 235**
- **Parte-hartzaileen kopurua: 10.459**

***"Don't be dummy! programa Zuk ez duzu ordezkorik / Para ti no hay repuesto(s)"*** Euskadiko unibertsitatetik kanpoko ikastetxeetan ikasten duten eta oraindik gidariak ez diren 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Dummy abatar birtualak aurkezten du programa hori eta horretan errepide-eremuko profesionalen (larrialdietako teknikariak, suhiltzaileak, ertzainak, udaltzainak...), trafiko-istripuen biktimen zein horien senideen zuzeneko lekukotzak eta ikus-entzunezko proiekzioak agertzen dira.

## 3.1 EDUCACIÓN Y FORMACIÓN VIAL

### EDUCACIÓN VIAL

**Acciones de sensibilización en materia de prevención de accidentes de tráfico dirigidas al alumnado del sistema educativo no universitario.**

El programa ***"Gerta dakizuke / Te puede pasar"*** está destinado a jóvenes de 14 a 18 años de los centros educativos de Euskadi. Se trata de un programa desarrollado por AESLEME (Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal), en el que se tratan las características de este tipo de lesión, muchas veces causada por un accidente de tráfico, y su prevención.

- **N.º de sesiones: 235**
- **N.º de participantes: 10.459**

Programa ***"Don't be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik / Para ti no hay repuesto".*** Está dirigido a jóvenes preconductores de entre 16 y 18 años de los centros educativos no universitarios de Euskadi. El programa está presentado por el avatar virtual Dummy y combina testimonios en directo de profesionales relacionados con el ámbito vial (técnicos de emergencias, bomberos, ertzaina, policía local...), víctimas de accidentes de tráfico y sus familiares junto a proyecciones audiovisuales.

**→29 saio.**

**→8.133 parte-hartzaile.**

**→29 sesiones.**

**→8.133 participantes.**

***"Norabide aldaketa / Cambio de sentido"*** antzerki pedagogiko parte-hartzailea da. Berariaz bide-heziketa lantzeko diseinatuta dago eta 14 eta 16 urte bitarteko gazteak bideko arrisku-jokabideez kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko helburua dauka.

Programa de teatro fórum ***"Norabide aldaketa / Cambio de sentido"*** es un teatro pedagógico participativo diseñado específicamente para trabajar la educación vial cuyo objetivo es concienciar y prevenir las conductas de riesgo vial en el colectivo de jóvenes entre 14 y 16 años.

**→19 saio.**

**→493 parte-hartzaile.**

**→19 sesiones.**

**→493 participantes.**

### Helduen Hezkuntzako (HHE) ikasleentzako "Atzera bueltarik ez / Sin vuelta atrás" antzerki forum programa

Antzerki pedagogiko parte-hartzailea, helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak bideko arrisku-jokabideez kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko helburua daukana.

### Programa de teatro fórum 'Atzera bueltarik ez / Sin vuelta atrás' para el alumnado de EPA

Teatro pedagógico participativo destinado a concienciar y prevenir las conductas de riesgo vial en el alumnado de los centros de educación básica de personas adultas.

**→9 saio.**

**→255 parte-hartzaile.**

**→9 sesiones.**

**→255 participantes.**

## BIDEKO ARRISKU-TALDEEKIN LAN EGITEN DUTEN HEZITZAILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA

### Ikasgelan bide-arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroak

Prebentzioari buruzko ikastaro hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko prestatzaileak prestatzeko Prest Gara programaren barruan dago.

**→2 ikastaro.**

**→28 parte-hartzaile.**

## FORMACIÓN DIRIGIDA A EDUCADORES/AS DEDICADOS A TRABAJAR CON GRUPOS DE RIESGO VIAL

### Cursos de 'Prevención de riesgos viales en el aula'

Este curso de prevención se incluye en el programa de formación de formadores Prest Gara del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

**→2 cursos.**

**→28 participantes.**




## BIDE-HEZKUNTZAKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN ERTZAIN ETA UDALTZAINEI PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA

### Udaltzainentzako prestakuntza-ikastaroa

Bide-heziketari buruzko oinarrizko ikastaroak eta hobekuntza-ikastaroak udaltzainentzat.

- **Ikastaro 1.**
- **11 parte-hartzaile.**

“Komunikazioaren bidezko prebentzioa” programaren barruan bideko sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzen duten ertzain boluntarioentzako oinarrizko ikastaroak eta hobekuntza-ikastaroak.

- **12 ikastaro.**
- **19 parte-hartzaile.**

## FORMACIÓN Y APOYO AL PERSONAL DE LAS POLICÍAS LOCALES Y ERTZAINTZA QUE DESARROLLAN PROGRAMAS DE EDUCACIÓN VIAL

### Curso de formación dirigido a policías locales

Cursos básicos y de perfeccionamiento de educación vial dirigidos a policías locales.

- **1 curso.**
- **11 participantes.**

Cursos básicos y de perfeccionamiento dirigidos a personal voluntario de la Ertzaintza que participa en acciones de sensibilización vial dentro del programa ‘Prevención desde la Comunicación’.

- **12 cursos.**
- **19 participantes.**

**Istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak kolektibo kalteberentzat: motor-gidariak, adinekoak, txirrindulariak eta MPIak.**

### MOTOR-GIDARIAK

Motozikletak seguru gidatzeko ikastaroak:. Ekintza hori “Jar zaitez nire gurpiletan/ Ponte en mis ruedas” izeneko estrategiaren barruan dago. Ikastaro horiek Euskadin bizi diren eta 125cc.tik gorako motozikletak gidatzen dituzten motor-gidarientzat dira.

- **→4 ikastaro.**
- **→100 parte-hartzaile.**

Errepideko prestakuntzaren proba pilotua. 2024ko irailaren 28an egindako saio teoriko-praktikoa. Prestakuntzaren alde teorikoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian eman zen. Praktikak zirkulaziorako zabalik dauden bideetan egin ziren, Ertzaintzaren Arabako Trafikoko Unitatearen laguntzarekin.

- **→Ikastaro 1.**
- **→29 parte-hartzaile.**

### ADINEKOAK

Adinekoentzako sentsibilizazio-programa. ***“Arriskua gutxien espero duzunean dago. 100 aldiz begiratu”*** sentsibilizazio-programa berri bat da, 65 urtetik gorako pertsonei zuzenduta dago eta trafikoko ezbeharrak prebenitzeko helburua dauka.

- **→ 16 ikastaro.**
- **→4.307 parte-hartzaile.**

**Programas de sensibilización sobre prevención de accidentes y fomento de comportamientos seguros en los colectivos vulnerables: motoristas, personas mayores, ciclistas y VMPs**

### MOTORISTAS

Cursos de conducción segura motocicletas. Acción enmarcada dentro de la estrategia ‘Jar zaitez nire gurpiletan / Ponte en mis ruedas’. Los cursos se han dirigido a motoristas con vecindad administrativa en Euskadi que conducen motocicletas de más de 125cc.

- **→4 cursos.**
- **→100 participantes.**

Prueba piloto formación en carretera. Sesión piloto teórico-práctica realizada el 28 de septiembre de 2024. La formación teórica se realizó en las instalaciones de la Academia Vasca de Policía y Emergencias. Las prácticas se realizaron en vías abiertas al tráfico con la colaboración de la Unidad de Tráfico de la Ertzaintza de Álava.

- **→1 curso.**
- **→29 participantes.**

### PERSONAS MAYORES

Programa de sensibilización para personas mayores ***“El riesgo está donde menos te lo esperas. Anda con 100 ojos”*** es un programa de sensibilización para la prevención de siniestros de tráfico dirigido a personas mayores de 65 años.

- **→16 cursos.**
- **→4.307 participantes.**

## TXIRRINDULARIAK

Bilbao-Bilbao nazioarteko martxa zikloturistarekin kolaboratu da.

- → **Hiru mezu-bidalketa egin dira, martxa zikloturistarekin lotutako 40.000 pertsonari bide-segurtasunari buruzko mezuak bidaltzeko.**
- → **Trafikoko zuzendaria 2024ko martxoaren 17an egindako martxaren hasieran egon da.**

## CICLISTAS

Colaboración con la marcha cicloturista internacional Bilbao-Bilbao.

- → **Envío de tres mailings con mensajes de seguridad vial dirigidos a 40.000 personas vinculadas con la marcha cicloturista.**
- → **Presencia de la Directora de Tráfico en el inicio de la marcha celebrado el 17 de marzo del 2024.**






## BESTE KOLEKTIBO BATZUK

### Sentsibilizazio-programa espetxeen eremuan

Bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigorra betetzen ari direnentzako programa. Horretan antzerki-teknikak erabiltzen dira pertsona horien errealitateari buruz hausnartzeko.

- → **Ikastaro 1.**
- → **7 parte-hartzaile.**

Bide-segurtasuna lan-eremuan. Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak, Hezkuntza Sailaren menpeko profesionalentzat.

- → **3 ikastaro.**
- → **45 parte-hartzaile.**

### Beste ekintza batzuk

***Eskolako agenda 2024-2025***

- → Bide-segurtasunari buruzko edukiak dituen 2024-2025 eskolako agenda diseinatu eta argitaratu da. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzat da.
- → Aleen kopurua: 72.000.

## OTROS COLECTIVOS

### Programa de sensibilización en el entorno penitenciario

Programa destinado a personas que cumplen condena por delitos contra la Seguridad Vial en el que se usan técnicas teatrales para reflexionar sobre sus realidades.

- → **1 curso.**
- → **7 participantes.**

Seguridad vial en el ámbito laboral. Cursos online de seguridad vial en el ámbito laboral dirigido al colectivo de profesionales dependientes del Departamento de Educación.

- → **3 cursos.**
- → **45 participantes.**

### Otras actuaciones

***Agenda escolar 2024-2025***

- → Diseño y publicación de la agenda escolar 2024-2025 con contenidos de movilidad segura. Dirigida al alumnado de segundo y tercer ciclo de Educación Primaria.
- → N.º de ejemplares: 72.000

***Bide-segurtasunari buruzko aholkuak emateko materiala***

- Bide-segurtasunari buruzko aholkuak emateko animazioak prestatu dira, testuinguru ez-formaletan mugikortasun segururako hezkuntzaren baloreak sustatzeko.

***Material con consejos de seguridad vial***

- Elaboración de animaciones con consejos de seguridad vial que promueven los valores de la educación para la movilidad segura en contextos no formales.

***Baimenak***

- Euskadin 24 bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-zentrori baimena eman zaie, gidabaimena bera edo gidabaimeneko puntuak berreskuratzeko ikastaroak emateko.

***Autorizaciones***

- Autorización de 24 centros de sensibilización y reeducación vial en Euskadi para la impartición de cursos de recuperación de puntos y recuperación del permiso de conducción.

Gidabaimena eta gidabaimeneko puntuak berreskuratzeko bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaroak kudeatzea.

- **431 ikastaro egin dira.**
- **4.653 parte-hartzaile.**

Gestión de cursos de sensibilización y reeducación vial para la recuperación de puntos y del permiso de conducir.

- **431 cursos realizados.**
- **4.653 participantes.**



# 3.2 BIDE-SEGURTASUNARI ETA MUGIKORTASUN SEGURUARI ETA IRAUNKORRARI BURUZKO TOPAKETAK

### TRAFIKOKO ETA BIDE SEGURTASUNEKO BATZORDE SEKTORIAL

Urtarrilaren 24a
Madril

Estibaliz Olabarri Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendaria DGTk Madrilgo egoitzan deitu duen Trafikoko eta Bide Segurtasuneko Batzorde Sektorialean izan da. Beste gai batzuen artean, 2023ko istripu-tasaren balantzea partekatu du eta Bide Hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin erlazionatutako ekimenak bateratzen parte hartu du.

### TRAFIKO-ISTRIPUETAN PERTSONEI ERAGINDAKO KALTEEN ETA GALEREN BALORAZIO SISTEMAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Martxoaren 11
Madril

Estibaliz Olabarri Trafikoko zuzendaria Balorazio Sistemaren Jarraipen Batzordean egon zen. Batzorde horren zereginetako bat da trafiko-istripuetan pertsonei eragindako kalteen eta galeren balorazio-sistemari jarraipena egitea; eta horretarako, bereziki aztertzea sistema horren abiaraztea, horren ondorio juridiko eta ekonomikoak eta ezarritako eguneratze-sistema.

### XXXV. BILBAO-BILBAO MARTXA ZIKLOTURISTA

Martxoaren 17a
Bilbao

Estibaliz Olabarri Trafikoko Zuzendariak XXXV. Bilbao-Bilbao Martxa Zikloturistaren irteerako ekitaldian parte hartu du, kolektibo zaurgarrientzako errespetua eskatuz. Olabarrik azpimarratu zuen berebiziko garrantzia duela zirkulazio-arauak eta, zehazki, errepidean ziklomotorrak edo txirrindulariak aurrerantzean tarteak zorrotz errespetatzeak.

# 3.2 ENCUENTROS DE SEGURIDAD VIAL Y MOVILIDAD SEGURA Y SOSTENIBLE

### COMISIÓN SECTORIAL DE TRÁFICO Y SEGURIDAD VIAL

24 de enero
Madrid

La Directora de Tráfico del Gobierno Vasco asiste a la Comisión Sectorial de Tráfico y Seguridad Vial convocada por la DGT en su sede de Madrid. Entre otros asuntos, comparte el balance de siniestralidad de 2023 y participará en la puesta en común de las iniciativas relacionadas con la Educación Vial y la formación.

### COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL SISTEMA DE VALORACIÓN DE LOS DAÑOS Y PERJUICIOS CAUSADOS A LAS PERSONAS EN ACCIDENTES DE CIRCULACIÓNL

11 de marzo
Madrid

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, asiste a la Comisión de Seguimiento del Sistema de Valoración, entre cuyas funciones figura la de realizar el seguimiento del sistema para la valoración de los daños y perjuicios causados a las personas en accidentes de circulación analizando su puesta en marcha, sus repercusiones jurídicas y económicas, y el sistema de actualización establecido.

### XXXV MARCHA CICLOTURISTA BILBAO-BILBAO

17 de marzo
Bilbao

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, inaugura la marcha cicloturista Bilbao-Bilbao, pidiendo respeto para los colectivos vulnerables. Olabarri destacó la importancia de respetar escrupulosamente las normas de circulación y, en concreto, las distancias de separación a la hora de adelantar a ciclomotores o ciclistas en carretera.

### MOTORREAN BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUA

Martxoaren 20a eta 21a
Zaragoza

Trafikoko zuzendariak Motorrean Bide Segurtasunari buruzko Nazioarteko Kongresuan parte hartu zuen. DGTk eta ANESDORrek sustatutako ekimen horretan nazioarteko hainbat profesional, teknikari eta erakunde elkartu ziren, berariaz motorrean bide-segurtasuna hobetzea bilatzen duten esperientziak partekatzeko, politikez eztabaidatzeko eta ekintza estrategikoak bultzatzeko.

### ITZULIA WOMEN 2024

Maiatzaren 11
Basauri

Estibaliz Olabarri Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariak eman dio maillota Itzulia Women 2024 probako sailkapen nagusiko lehenengo txirrindulari gazteenari (sub23), Shirin Van Anrroiji, Basaurin hasi eta amaitu den etapan.

### CONGRESO INTERNACIONAL DE SEGURIDAD VIAL DE LA MOTO

20 y 21 de marzo
Zaragoza

La Directora de Tráfico participa en el Congreso Internacional de Seguridad Vial de la Moto, una iniciativa, promovida por la DGT y ANESDOR, que reunió a profesionales, técnicos y organizaciones internacionales con el objetivo de compartir experiencias, debatir políticas e impulsar acciones estratégicas dirigidas específicamente a la seguridad vial de la moto.

### ITZULIA WOMEN 2024

11 de mayo
Basauri

La Directora de Tráfico del Gobierno Vasco, Estibaliz Olabarri, ha sido la encargada de entregar el maillot, a la primera corredora más joven (sub23), Shirin Van Anrooij, en la clasificación general de la Itzulia Women 2024, en la etapa, que ha discurrido con salida y meta en Basauri.



### EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN KONTSEILUA

Ekainaren 12a
Vitoria-Gasteiz

Trafikoko Zuzendariak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluan parte hartu du. Erakunde horretan Euskadiko segurtasun publikoaren sisteman eskudunak diren edo inplikatuta dauden erakunde guztiak daude ordezkatuta: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, EUDEL, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza, Legelarien Euskal Kontseilua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, EAEAN eta EAEko Fiskaltza Nagusia. Bileran, besteak veste, Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2025eko Planaren betetze-maila aztertu dute.

### CONSEJO DE SEGURIDAD PÚBLICA DE EUSKADI

12 de junio
Vitoria-Gasteiz

La Directora de Tráfico asiste a la reunión del Consejo de Seguridad Pública de Euskadi, el órgano en que representa todas las entidades competentes o involucradas en el sistema de seguridad pública de Euskadi: Gobierno Vasco, diputaciones forales, EUDEL, Delegación del Gobierno español, Consejo Vasco de la Abogacía, Consejo General del Poder Judicial, TSJPV y Fiscalía General del País Vasco. Durante la sesión, las y los representantes de las instituciones han analizado, entre otros asuntos, el grado de cumplimiento del Plan de Seguridad Pública de Euskadi 2025 hasta la fecha.

### EUSKADIKO SEGURTASUN PRIBATUAREN KONDEKORAZIOEN ETA SARIEN BANAKETA

Ekainaren 14a
Arkaute

Trafikoko Zuzendaria Euskadiko Segurtasun Pribatuaren kondekorazioak eta sariak emateko ekitaldian izan da. Ekitaldi horretan, Segurtasun Sailak ohorezko aipamenak egin dizkie bere betebeharrak betetzean nabarmentzen diren segurtasun pribatuko langileei.

### ENTREGA DE CONDECORACIONES Y DISTINCIONES DE LA SEGURIDAD PRIVADA EN EUSKADI

14 de junio
Arkaute

La Directora de Tráfico asiste al acto de Entrega de Condecoraciones y Distinciones de la Seguridad Privada en Euskadi que distingue con menciones honoríficas por el Departamento de Seguridad al personal de seguridad privada que sobresalga en el cumplimiento de sus obligaciones.

### MOTOZIKLETAK GT-52 LANTALDEA

Uztailaren 17a
Madril

Trafikoko zuzendaria Trafiko Zuzendaritza Nagusiko Motozikleta GT-52 Lantaldearen bileran egon zen. Bilera horretan motor-gidariek bide-sarean duten ezbehar-tasaren bilakaera eta Bide Segurtasunaren 2030 Estrategia aztertu ziren, baita istripuak prebenitzeko martxan jartzen ari diren jarduerak ere.

### GRUPO DE TRABAJO DE MOTOCICLETAS GT-52

17 de julio
Madrid

La Directora de Tráfico acude a la reunión del Grupo de Trabajo de Motocicletas GT-52 de la Dirección General de Tráfico. En ella se analizó la evolución de la siniestralidad de las y los motoristas en la red viaria y la Estrategia de Seguridad Vial 2030 además de las distintas actuaciones que se están llevando a cabo para la prevención de accidentes.

### BIDEKO EKIPAMENDUARI BURUZKO XIV. JARDUNALDIA

Irailaren 18a
Madril

Trafikoko zuzendaria Errepideen Elkarte Teknikoak eta AFASEMETRAk antolatutako “Bideko Ekipamenduari buruzko XIV Jardunaldira” joan zen. Topaketa hori sortu zen errepide nazionaletan zein europarretan bideko ekipamenduak hobetzeko eta bideko arauak eguneratzeko beharra zegoelako teknologia berriekin bat etorriz.

### XIV JORNADA SOBRE EQUIPAMIENTO VIAL

18 de septiembre
Madrid

La Directora de Tráfico asiste a la XIV Jornada sobre Equipamiento Vial, organizada por la Asociación Técnica de Carreteras y AFASEMETRA. Este encuentro tiene su origen en la necesidad de mejorar los equipamientos viales en las carreteras, tanto a nivel nacional como europeo, y de actualizar las normas viales para que estas estén al unísono de las nuevas tecnologías.

## JAR ZAITEZ NIRE GURPILETAN

